

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Luis Ibarra Izagirre

*Durango,
Bizkaia (1929)*

Aurkibidea



Biografia

1929an jaio zen [Mikeldin](#).

Ama durangarra zuen eta aita Gordexolakoa. Zazpi urtegaz-
edo, gerra aurretik, lurretako
plazara joan ziren bizitzera.

Gurasoek Mendizabalen
lantegian egiten zuten lan eta
sozialistak ziren, baina
"lehengo sozialistak" Jose
Luisek dioen legez. Gerra
sasoian bere aita Mateo
batailoian aritu zen miliziano.

Hiru neba-arrebak
amamarekin ebakuatu ziren
Irazagorrian (Gordexola) eta
ama Durangon egon zen eta
gero Artziniegan. Durangora
bueltatzerakoan, etxea hutsik
aurkitu zuten: dena ostuta.

Aita frontetik etortzerakoan,
ama eta biak kartzelan sartu

zituzten UGTko kideak eta
sozialistak izatearren; 4-5
urtez egon ziren preso. Ama
lotara baino ez zen joaten
kartzelara; egunez, neskame
lanetan ziharduen

(falangisten bulegoak
garbitu...) eta ilea motz-motz
ebaki zioten jendeak "zer
zen" jakin zezan. Bitarte
horretan 3 neba-arrebak
amamarekin egon ziren.

Aitaren aldeko aitona-amonak
Bilbon bizi zirenez bertan ere
denbora asko igaro zuten.

Umetan lurretako eskolan
hasi zituen ikasketak, baina
hura apurtzerakoan,
konpondu arte Durangoko La
Villara joan ziren. 14 urtegaz
Durangoko maristetara joan
zen lanbide bat ikastera eta
handik Baqué kafeaken hasi
zen lanean; lehenengo
Pinondon; gero, Barrenkalen;
eta, azkenik, gaur egun
dagoen lekuan, Salabarrin.

Durangoko [Momotxo](#) auzoko
[Goikoetxebarria baserriko](#)
[alaba](#)rekin ezkontzerakoan,
jaioterrira bueltatu zen,
[Pinondora](#) hain zuzen ere.



Zintak

DUR-030

- **Proiektua:** Durangoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-04-29
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ibarra Izagirre, Jose Luis | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com